# bale talaiak

Ibilbideak — Itinerarios

GETARIA - ZARAUTZ

## .1. SAN ANTON TALAIA — 1,7 Km — 30′

Getariako portutik San Anton mendian gora egingo dugu itsasargiraino. Haren ondoan, jada desagertuta dagoen San Anton ermitaren zimenduak eta talaia baten dorre zilindrikoa ikus ditzakegu. Txoko honetatik, Higer eta Matxitxako lurmuturren artean zabaltzen den euskal kosta osoa ikus dezakegu.

Ondoren, San Anton mendiaren tontorrera iritsiko gara. Antzina, beste talaia bat zegoen leku horretan. Gaur egun dagoen eraikina, “Katxapo” izenez ezagutzen dena, XX. mendekoa da. Talaia honetatik ere, panoramika zoragarria dugu.



## .1. La Atalaya de San Antón — 1,7 Km — 30′

Desde el puerto de Getaria subiremos por el monte San Antón hacia el faro. Junto a él se conservan los cimientos de la desaparecida ermita de San Antón y la torre cilíndrica de una atalaya. Desde este punto se otea toda la costa vasca extendida entre los cabos Higer y Matxitxako.

En lo alto del monte San Antón históricamente se emplazó otra atalaya. El edificio actual, denominado popularmente “Katxapo”, es del siglo XX. También desde esta atalaya es maravillosa la panorámica.

## .2. KOSTALDEKO BIDEA — 3,95 Km — 1 h 10′

Getaria eta Zarautz lotzen ditu bide honek. Itsaslabarrak inguratuz, N-634 errepidearen paraleloan doan ibilbide laua da.

Altzako Harria lurmuturreko itsaslabarren ondotik igaroko gara. Leku horretan, harkaitz-muino baten gainean kokatuta zegoen Lasuntalai talaia, gaur egun desagertuta dagoena. Handik ikusten zituen talaiariak Malkorbe badiako lazun-sardak edota beste mota batzuetako arrain-sardak.



## .2. El camino de la costa — 3,95 Km — 1 h 10′

Este camino une Getaria y Zarautz a lo largo de un paseo llano que bordea los acantilados y que va paralelo a la carretera N-634.

Pasaremos junto a los acantilados del cabo de Altzako Harria. En esta zona, sobre un promontorio rocoso se ubicaba la atalaya de Lasuntalai, hoy en día desaparecida. Desde ella el atalayero observaba la presencia de bancos de albures o de otras especies en la bahía de Malkorbe.

## .3. BIDE ZIRKULARRA — 10,6 Km — 3 h

Zarautzera iritsi baino lehen, Santa Kruz talaiara hurbilduko gaituen bidea hartuko dugu. Talaia Allepunta lurmuturrean dago. Toki horretatik ezin hobeto ikusten da Zarauzko hondartza, baina baita Getaria (mendebalderantz) eta Zarauztik ekialdera dauden Gipuzkoako portu guztietako bokaleak ere.

Handik gutxira, Santa Barbara baselizaren ondotik igaroko gara (XVIII.mendean eraikia). Haren mantentze-lanak dohaintzen bitartez egiten ziren; esate baterako, hiribilduko arrantzaleen kasuan, harrapatutako balearen zatien bidez egiten zen. Hemendik ere kostaldearen panoramika ederra ikus dezakegu.



## .3. Ruta circular — 10,6 Km — 3 h

Antes de llegar a Zarautz tomaremos un camino que nos acercará a la atalaya de Santa Cruz, situada sobre el cabo de Allepunta. Este enclave es un perfecto mirador a la playa de Zarautz y su campo visual incluye Getaria al Oeste y las embocaduras de todos los puertos guipuzcoanos situados más al Este de Zarautz.

Poco después pasaremos junto a la ermita de Santa Bárbara, construida en el siglo XVIII. Su mantenimiento se realizaba a través de donativos, que en el caso de los pescadores de la villa se hacía por medio de partes de ballena capturada. Desde ella se disfruta también de una bella panorámica a la costa.




| BALE TALAIAK | Atalayas Balleneras |
| --- | --- |
| **Ibilbideak** | **Itinerarios** |
| 1.- San Anton talaia | 1.- Atalaya de San Antón |
| 2.- Kostaldeko bidea | 2.- Camino de la Costa |
| 3.- Bide zirkularra: Getaria - Zarautz | 3.- Ruta circular: Getaria - Zarautz |
| Talaia | Atalaya |
| Turismo bulegoa | Oficina de turismo |
| Panela | Panel |
| Atril | Atril |
| Bista panoramikoa | Vista panorámica |
| **Baliabide turistikoak** | **Recursos turísticos** |
| Apartamentua | Apartamento |
| Aterpetxea | Albergue |
| Ostatua | Pensión |
| Hotela | Hotel |
| Landa-etxea | Casa rural |
| Jatetxea | Restaurante |
| Aparkalekua | Aparcamiento |
| Eliza, baseliza | Iglesia, ermita |
| Museoa interpretazio-zentroa | Museo Centro de interpretación |
| Etxe berezia | Edificio singular |
| Kirol-portua | Puerto deportivo |
| Itsasargia | Faro |
| Hondartza | Playa |

## ATALAIAK

Behatzea eta albisteak helaraztea ziren talaiaren funtzio nagusiak, komunitateen iraupen ekonomikorako ezinbestekoak ziren funtzioak, hain zuzen: baleen eta arrain-sarden edota helmugako portura atoian eraman behar ziren merkataritza-itsasontzien berri emateko balio zuen, galerna edo ekaitza zetorrela abisatzeko, kortsarioen eta gerraontzien berri emateko, halakorik ikusten bazen, beste portu lehiakide batzuetako itsas-zirkulazioa kuantifikatu eta kontrolatzeko, etab.

## *Las Atalayas*

La función principal de una atalaya era la observación y la transmisión de noticias sensibles, fundamentales para la supervivencia económica de las comunidades: se observaba y avisaba de la presencia de posibles capturas (ballenas y bancos de peces) o de barcos mercantes, que precisaban ser remolcados o atoados a su puerto de destino, la llegada de galernas o tormentas, así como de buques de guerra o corsarios enemigos, se realizaba la cuantificación y control del tráfico naval de otros puertos rivales, etc.



## BALEAREN ARRANTZA

Itsasertzeko hiribilduen fundazio ofiziala baino lehenagotik egiten zen balearen arrantza Euskal Herrian. Hiribilduetako ezkutuek, kasu gehienetan, zetazeo horrekiko lotura erakusten dute: Getaria, Biarritz, Hendaia, Hondarribia, Zarautz, Mutriku, Lekeitio eta Bermeo.

Balea oso preziatua zen itsasertzeko komunitateentzat eta Erdi Aroko gizarte osoarentzat. Haren haragi elikagarria jaten zuten, eta gantzetik ateratako arrain-olioa, berriz, argiztapenerako, jantziak inpermeabilizatzeko edo xaboiak egiteko erabiltzen zuten. Balearen hezurrak, kartilagoak eta bizarrak ere aprobetxatzen ziren.

Euskal kostaldean, euskal balea edo *Eubalaena glacialis* arrantzatzen zen. Uda Norvegiako eta Islandiako uretan igarotzen zuen, eta urritik otsailera Bizkaiko Golkoko ur epelagoetara jaisten zen. XVI-XVII. mendeen eta XVIII. mendearen hasiera bitartean, ohikoa zen euskal arrantzaleek Galizia, Ternua eta Artikora zihoazen espedizioetan parte hartzea.

1901eko maiatzaren 14an harrapatu zen azken balea euskal kostaldean.

## *La Caza de la Ballena*

La caza de la ballena se practicaba desde tiempos anteriores a la fundación oficial de las villas del litoral vasco, cuyos escudos en muchos casos reflejan la vinculación con este cetáceo: Getaria, Biarritz, Hendaya, Hondarribia, Zarautz, Mutriku, Lekeitio y Bermeo.

La ballena ("balea" en euskera) era un bien muy preciado y el principal recurso económico, no sólo para las comunidades costeras, sino para toda la sociedad de la Edad Media. Se consumía su nutritiva carne y de su grasa se obtenía el saín para el alumbrado, la impermeabilización de prendas o para la elaboración de jabones. También se aprovechaban sus huesos, cartílagos y barbas.

En la costa vasca se cazaba la ballena franca glacial (*Eubalaena glacialis*), que pasaba el verano en aguas de Noruega e Islandia y descendía a las más cálidas aguas del golfo de Bizkaia de octubre a febrero. Entre los siglos XVI y XVII y comienzos del XVIII también era frecuente que los pescadores vascos participaran en la caza de la ballena en expediciones destinadas a Galicia, Terranova y el Ártico.

El 14 de mayo de 1901 fue capturada en la costa vasca la última ballena.

**Talaiariak**

Talaiariak balea ikusten zuenean, seinale akustiko edota bisualen bidez ematen zuen horren berri. Talaiariaren lana oso garrantzitsua zen, herritarrek inguruko herrietako arrantzaleek baino lehenago harrapa zezaten balea, arpoia sartzen zen ordenaren arabera banantzen baitziren gero irabaziak.

**El Atalayero**

El atalayero, al divisar una ballena, daba la alerta por medio de señales acústicas y/o visuales. Su labor resultaba de gran importancia para conseguir que fuesen los vecinos de su pueblo quienes alcanzasen a las ballenas antes de que lo hicieran los de las localidades del entorno, ya que el reparto de los beneficios se hacía en función del orden en que cada uno había clavado sus arpones.










## SAN ANTON TALAIA

San Anton uhartean, bi talaia-kokaleku aurki ditzakegu:

*Itsasargiaren inguruan.* Hortxe daude San Anton ermitaren zimenduak, garai batean talaiariak gela gisa erabili zuenarenak, eta talaiaren dorre zilindrikoa, itsaslabarraren ertzean. Izugarria da leku horrek hartzen duen ikus eremua, gailurra bera baino behatoki hobea baita.

*Uhartearen gailurrean.* XIX. mendean San Antongo gotorlekua eraiki zenean galdu zen talaia zaharra. Ondoren, XX. mendean, gaur egun dagoen eraikina altxatu zen, eta talaiaren funtzioa betetzen jarraitu zuen XX. mendeko bigarren erdialdera arte. Bigarren talaia hori ezinbestekoa zen, lehenengo talaiatik jasotzen ziren seinaleak herriari igortzeko.

## *La Atalaya de San Antón*

En la isla de San Antón podemos encontrar dos emplazamientos atalayeros:

*En la zona del faro*: Aquí se conservan los cimientos de la ermita de San Antón, que en el pasado fue usada como habitación del atalayero, junto con la torre cilíndrica de la atalaya al borde del acantilado. Es asombroso el campo visual que se disfruta desde esta atalaya, siendo este punto mejor observatorio que el de la cumbre.

*En la cumbre de la isla.* La construcción del fuerte de San Antón durante el siglo XIX ocasionó la pérdida de la antigua atalaya. Posteriormente, ya en el siglo XX se construyó el actual edificio, el cual continuó ejerciendo sus funciones atalayeras hasta la segunda mitad del siglo XX. Esta segunda atalaya era necesaria para trasmitir a la villa las señales que se recibían desde la primera.





## SAN ANTONGO BATERIAK

Itsasoa eta itsasertzeko zerrenda kontrolatzeko eta itsasaldetik izan zitzakeen erasoetatik herria babesteko eraiki ziren San Antongo bateriak.

Gerra garaietan, bateria txikiak eraiki ziren San Anton mendian zehar, eta, sarritan, mendiari San Anton gaztelua ere deitu izan zitzaion horregatik. Horrela, lehenengo gerra karlistan, guztira 7 kanoi zituzten lau bateria ezarri zituzten, ekialdeko badia kontrolatzeko, eta kanoi bana zuten hiru bateria, berriz, mendebaldeko badia kontrolatzeko.

**Gotorlekuak**

San Antonen gotorleku iraunkor garrantzitsuak eraikitzeko planak egin zirela dirudien arren, ez ziren inoiz gauzatu. XIX. mendearen bukaeran aurki dezakegu horren adibide bat: garai horretan, saiakera ugari egin ziren kostaldeko defentsa San Antonen ezartzeko, une hartako teknologia militarrera egokituta, betiere. Baina ez ziren gauzatu, oso-oso txikia baitzen inor lehorreratzeko arriskua.

## *Las Baterias de San Antón*

Las baterías de San Antón estuvieron pensadas para controlar el mar y la franja costera y defender la villa de posibles ataques desde el mar.

Se crearon pequeñas baterías distribuidas por el monte San Antón en diversas épocas bélicas, llegándose incluso a denominar frecuentemente al monte como castillo de San Antón. Así, durante la primera guerra carlista hubo cuatro baterías con 7 cañones en total emplazadas para el control de la rada oriental y de tres baterías de un cañón cada una para el control de la rada occidental.

**Fortificaciones**

Aún cuando parece que hubo planes para realizar fortificaciones permanentes de cierta importancia en San Antón, éstas no llegaron a plasmarse sobre el terreno. Un ejemplo de ello lo encontramos a finales del siglo XIX, época en la que se realizaron diversos intentos de dotar a San Antón de una defensa costera adaptada a la tecnología militar del momento. Sin embargo, no se llegó a ejecutar al considerarse que el peligro de desembarco era mínimo.

## SANTA KRUZ TALAIA

Zarauztik Santa Kruz talaiarantz igoko gara. Allepunta lurmuturraren tontorrean kokatuta dago, Santa Barbarako baselizara iritsi baino lehen.

Talaia horren hainbat elementu gordetzen dira oraindik ere: beheko balkoi erdizirkularra; plataforma erdizirkular bat itsaslabarraren ertzean; ur-tanga gisa erabiltzeko zulo bat; dorre erdizirkular bat, beste balkoi baten ondoan; etxola baten hondakinak, eta hareharritan zizelkatutako eserleku batzuk, itsasora begira.

Mendebalderantz, Getariako San Anton mendia ikus daiteke bertatik, eta ekialderantz, berriz, Zarauztik ekialdera dauden Gipuzkoako portu guztietako bokaleak. Horrela, merkataritzaren esparruan garrantzi handia zuten portuek, hala nola Donostiakoak, Pasaiakoak eta Hondarribikoak, zuten itsas-zirkulazioaren berri izan zezaketen; garrantzi handiko informazioa zen hori, produktu batzuen erosketak, atzerritik zetozen elikagaien erosketak, esaterako, negoziatzeko orduan.

## *La Atalaya de Santa Cruz*

Desde Zarautz ascendemos hacia la atalaya de Santa Cruz, ubicada en lo alto del cabo de Allepunta, poco antes de llegar a la ermita de Santa Bárbara.

De esta atalaya se conservan una balconada semicircular inferior; una plataforma semicircular al borde del acantilado; un covacho habilitado como aljibe; una torre semicircular junto con otra balconada; la ruina de una caseta y varios asientos con vistas al mar tallados en roca arenisca.

Aunque el campo visual que se disfruta desde esta atalaya se limita por su lado occidental a la observación del monte San Antón de Getaria, por su lado oriental se observan las embocaduras de todos los puertos de Gipuzkoa situados más al Este. De esta manera, se podía disponer de noticias del tráfico naval de puertos de gran importancia comercial como San Sebastián, Pasaia y Hondarribia, información vital a la hora de acudir a ellas a negociar la compra de determinados productos como víveres procedentes del extranjero.

**Funtzioak**

Badirudi ezaugarri eta kokapen askotarikoa ageri duten aztarna horiek talaia honek historikoki bete zituen funtzioen erakusgarri direla. Dorre zilindrikoak eta etxolak osatzen duten multzoak talaia baten funtzio espezifikoak betetzen zituen, eta mendebaldeko itsaslabarraren gainean dagoen balkoi jarraituak, berriz, seineroaren funtzioa. Nabigazioa zaila zen lekuetan itsasontziak gidatzea zen seineroaren funtzioa.

Azpimarratzekoa da talaia horretatik igorritako seinaleak ezin direla ikusi ondoko bi herrietatik, hau da, Oriotik eta Getariatik.

**Funciones**

Los restos de distintas características y ubicación parece que corresponden a las distintas funciones históricamente ejercidas por esta atalaya. El conjunto formado por la torre cilíndrica y la caseta cumplían las funciones específicas de una atalaya y la balconada que se yergue sobre el acantilado occidental con la función de un señero, el cual era encargado de guiar a las embarcaciones en puntos como éste de comprometida navegación.

Significativamente, las señales emitidas por esta atalaya no son observables por ninguna de las vecinas localidades de Orio y Getaria.







### ARAUAK
### *Normas*

LARRIALDIAK
EMERGENCIAS

112 SOS DEIAK

### TURISMO BULEGOAK
### *Oficinas de Turismo*

GETARIA
Aldamar parkea, 2
Tel. 943 14 09 57
info@getariaturismo.eus
www.getariaturismo.eus

ZARAUTZ
Nafarroa kalea, 3
Tel. 943 83 09 90
turismoa@zarautz.eus
www.turismozarautz.eus

ZARAUZKO UDALA

Getariako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Egilea / Autor: MIKEL LEOZ.